

# Osasun Departamentuak pisu bat behera erortzearen gaineko lan-istripuaren "alerta" bat argitaratu du, antzeko kasuak gerta ez daitezen

Lan-istripuen benetako kasuak berrikusteko aukera 2017-2020 Ekintza Planeko Lan Istripuen Programan kokatzen da

**Asteazkena, 2019ko Apirilaren 17a**

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) zazpigarren "alerta" argitaratu du; bertan, pisua behera erortzearen gaineko lan-istripu larria aztertzen da, eta jarduteko eta prebenitzeko gomendioak ematen dira, Nafarroan istripuak eragiten dituzten faktoreen inguruan sentibilizatzeko, hausnartzeko, ikasteko eta jarduteko helburuarekin eta antzeko istripuak gerta ez daitezen.

*Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza.*